

# IKASTOLARA ALA ESKOLARA

Gazteitz'en bizi naiz, baña tolosarra naiz, eta abenduko il onen asieran izan naiz Tolosa'n, nere errian. Ta an esan didaten gerta-kizun pitxi bat nai dizutet kontatu «ZER» aldizkariaren irakurleei.

\* \* \*

Bi gizonak kontatutako gerta-kizuna da: A lustiza adiskideak, aurrena, Tolosa'ko kasinuan eta Xegundo praktikanteak gero Udaletxeko enparantzan.

Gipuzkoa'ko erri eta uri guztiak bezela, Tolosa ere mendi tartean sarturik dago. Mendi ederrak, mendi garaiak: Ernio, Uzturre, Aralar... Oiek baiño apaltzagoa, koxkorakoa, baña menditxo polita, Izaskun dago uriaren albo-albo-alboan. Zoragarria da menditxo orren gainetik, Kantauri itxasotikan Aralarko Mailloetariño, ikuspegia.

\* \* \*

Baña izaditiko edertasun oiek baiño ospe aundiagoa eman diote menditxo oni bere gainean dagoan baselizak eta baseliz orren barrengo Ama Birjiñaren irudi zaarrak: Izaskun'go Andra Mari. Tolosar guztientzat, «Izaskun'go Amatxo», Ama Birjin ori bait da Tolosa'ren eta Tolosa-inguru guztiaren Zaindaria.

Baselizaren inguruan baserri batzuak dagoz, an emen banatuak. Baserri zuriak, len gaur baiño aberatsagoak izanak.

Baserri oietako baten izena «MONPOIDO» da, izen oieza (rarua). Ba-dira Tolosa'ren inguruan, eta baita Donosti'ren inguruan ere orrelako izenak, frantziar-kutsua dutenak.

Lekuona'tar Imano( jakintsuak dionez, XII mendean Gaskuñako nekazariak onera ekarriak, ordurarte Gipuzkoa eta Bizkai artzai-lur ornen ziran ba, orduan gaskoiñek, Naparroa'ko Erregearen baimenarekin, nekazaritza ekarri ziguten arte.

Gaskoiñak, errioxatarrak bezela, odolez eta jatorriz, euskotarrak dira, naiz berak orain ortaz oroitzen ez. Gaskoiñ aiek gañera, zentzu oneko jendeak ziran zalan-tzarik gabe. Ala da beintzat MONPOIDO'ko etxejoauna gaur.

\* \* \*

Etxeko jaun ori, Zubelzu'tar Kaxildo duzu, eta oso kezkatu-rik omen dabil egun auetan bere semearen eziketari pentsatzen. Seme orrek ikasten duan Euskera da

Kaxildo Zubelzu'tarra orrela kezkatzen duan gauza. Kaxildo, jakiña, giputxa da, Ibarre'ko semea, eta gipuzkera mintzatzen dute berak eta bere jendeek etxean.

Umeak ordea «el batua» ikasten du ikastolan; eta aitak ez dio bere umeari ulertzen.

Umeak gañera Euskeraz ez dakila esaten dio aitari. To! Euskeraz itzagiten ez dakila esan ume muturtzikin batek, Ibarre'n jalo eta Izaskun'en Monpoido'ko etxejoaun dan giputx baserri-terri!

\* \* \*

Asarreturik omen dabil alta, eta au esaten omen dio entzun naidion guztiari: «Nik euskera bat, eta nere semeak bestea? Nik ez dial etxean orrelako nasketarik nai! Ikastolatik atera, eta «Eskuela Nazional» ean sartuko dial nere ume mukizu ori; eta kitto!».

Parregarria? Bai, irakurle, negargarria ez ba'litz. Eta..., Tolosa'ko Ibarre'ko giputx batek bere semeari «el batua» ulertzen ez ba'dio, nola ulertuko dio bere semeari «el batua» ori bera Orozko'ko Ibarra'ko bizkaitar batek?